


Mila urte aldarrikatuz badirela nor

'Agotak, berdintasunaren alde borrokalaria' liburua ondu dute Josu Legarretak eta Xabier Santxotenak; beste ikuspuntu batetik ikertu dute gizatalde horren historia, azken bostehun urteetako agiriak baliatuz.



Iñaki R. Mendoza

Litekeena da gu bisigodoak izatea». *Gu* hitza darabil etengabe, talde edo antzeko zerbaiten parte dela azpimarratuz. Xabier Santxotena artista agota da, eta harro dago, inor inoiz baino gehiago. «Ez gara herri bat; arraza konkretu bat ere ez». Santxotenak nahiago du «gizatalde» hitza erabili. *Cagots, gatees* edo *cascarot* frantsesez; *agotes* edota *patarinos* gaztelaniaz; deitura andana jaso dituzte lekuaren arabera, peioratiboak denak, ordea. Izan ere, mendez mendez bortxaz baztertuak izan

dira agotak, orotariko aurreiritziak aitzakia izanik.

Egiaz ere, enigmak inguratutik bizi izan dira beti; gizataldearen jatorria ere ez da ziurra. Agotak aipatzen dituen lehen dokumentua duela mila urtekoa da, X. mendeko Lucq-de-Bearn (Okzitania) abadian agerturikoa, eta *creestias* [kristauak] terminoaren aburuz, ordea, agotak «askoz lehenago» agertu ziren, eta ez supituki sortu. Hipotesiak, baina, hamaika dira, eta zehazki frogatu ezinezkoak denak.

Santxotenaren iritziz, bisigodoena da tesi arrazoizkoena: «*Cagot* izenak godo-txakur esan nahi du, eta horrek ja pista bat ematen digu». Izan ere, izen horren jatorria Vouilleko 507. urteko gudan

sortu omen zen, Galia eskuratze-ko frankoen eta godoen arteko norgehiagokan. Godoek galdu zuten, eta paria gisa hartu zituzten. Geroztik, Okzitania aldean gelditu ziren gehienak.

Erromanikoa eta, ondoren, gotikoa iritsi zirenean, harriaren eta egurraren lanketek loraldia izan zuten, eta gremio horietan trebatu ziren Okzitanian jarraitzen zuten godo horiek, tenplarioen laguntzarekin. «Biarnoko agotek egin zuten Parisko Notre-Dame katedralaren sabaia», esan du Santxotenak harro. Ordea, aurki desagertu ziren tenplarioak, eta Okzitanian alde egin behar izan zuten agot askok, lan bila. «Agoten ametsa zen Done Jakue bidean lan egitea, elizak eta bestelakoak eraikitzen». Horrela


iritsi izan zitezkeen agotak Euskal Herrira, hipotesietako baten arabera.

Ordea, bereziki aipatzekoa da ehun urte atzerago jazo zen Murretako (Okzitania) gudaren tesia, agotenganako estigmatizazio eta aurreiritziak orduan sortu baitziren. Jaun feudal laikoekin zein erlijiosoen handinahikeriak zirela medio, Katarismoak indar handia hartu zuen XIII. mendean, eta, ondorioz, Eliza katolikoak heretikotzat hartu zuen Okzitania; askok alde egin zuten bertatik, toki seguruagoen bila. Uste zuen heretikoak madarikatzeko jaungoikoak bidalitako zigorrak zirela agotak, eta hortxe zabaldu zen gizataldearenganako beldurra. «Kasik gurekin hasi zen inkisizioa», esan du Santxotenak.



'Agotak, berdintasunaren alde borrokalaria'

Josu Legarreta eta Xabier Santxotena
Erein, 256 orri



2



3



1 | DONOSTIA

Legarreta eta Santxotena, astelehenean egin zuten liburu aurkezpenari. JON URBE / FOKU

2 | OSPITALEPEA

Agotendako ura bedeinkatzeko ontzi bereziak zituen Zuberoako XII. mendeko eliza. BERRIA

3 | BAIGORRI

Legarreta eta Santxotena, Nafarroa Behereko Doneztebe elizako agoten atearen aurrean. BERRIA

Katarismoa, ordea, kristautasun purifikatua besterik ez zen, bertze dotrina erlijioso bat gehiago, baina Elizaren tesia minimoki zalantzan jartzen zuen oro izendatzen zuten heretiko orduan. Halere, agoten eta katarismoaren arteko lotura hertsia ezin da egia absolututzat jo, artistaren arabera: «Agotak kataroak zirela? Ba, ez dakigu, baina ikerketa batzuen arabera kataroen ehunekoa ez zen handia, eta are txikiagoa zen agoten artean; lan egin eta bizitza aurre atera nahi zuten soilik». Hori horrela izanik, agotenganako jazarpenaren benetako arrazoiak ekonomikoak eta politikoak omen zirela esan du Santxotena, erlijioaren aitzakiapean.

Dena dela, artistaren aburuz, pentsa daiteke Euskal Herrira iritsitako agotak Muretetik barik hurbilago herrialde batetik iritsitako migratzaileak zirela. «Lucq-de-Bearn, Lescar... gure mugetatik gertu daude, eta bertako eraikuntza garrantzitsuetan agotak lanean aritu zirela ukatzetik ez dago». Monarkien nazioarteko politikak ere migrazio andana eragin zuten, eta litekeena da horien karietara ere lekualdatu izana. «Baliteke Cluny ordenaren agindupean Aragoiko [Espainia] lurraldeetara iritsi izana, edota



«Agotek izan zituzten tasun goragarriak azaltzeko bildu ditugu berdintasuna lortzeko egin zituzten ahaleginak»

XABIER SANTXOTENA
Liburuaren egilea

«Ez genuen analisi orokor bat egin nahi, eta agotek izan zituzten gorabeheraz hornituriko kapituluak idatzi ditugu»

JOSU LEGARRETA
Liburuaren egilea

Biarnoko eta Aragoiko harreman aristokratikoen kariaz lekualdatzea».

Baztertuen bilgune

Hamaika dira hipotesiak, ordea, eta denek izanen zuten eragina gizataldearen migrazioetan, aldeaz edo moldez. Arrazoi bat edo beste, Pirinioen inguruan zokoratutik gelditu ziren behinola okzitanierak ziren godo edo agotak. Horren adibide dira Pirinio inguruetan dauden 142 herri agot.

Beraz, dela Aragoitik edo Bearnotik, Pirinioetatik barrena heldu ziren agotak Euskal Herrira, konkretuki, Zuberoara, Nafarroa Beherera, Lapurdira, Nafarroa Garaia eta Gipuzkoara. Ez zuten, baina, harrera epelik izan. Kanpotarrak ziren, «odol zikineko gizakume madarikatuak», eta hala tratatzen zituzten. Auzoetan baztertutik bizi ziren, eta gainerako herritar kaperadunen pribilegioetatik urrun. Elizetan sartzeko ate propioak zituzten, atzealdean, eta bataillarriak ere bereziak zituzten. Gaixotasun moralaz beste, fisikoa ere egotzen zieten, legenardunak zirela argudiatutik.

Baztanen, Arizkungo Bozate auzoan bizi ziren, babesaren truke Urtsuako jaunarendako lanean. Bakartutik bizi ziren, etxe askoz

txikiagoetan, eta horrek ezaugarri propioak garatzeko modua eman zien agotek. Artisanak ziren tradizioz, harginak eta zurginak, eta musika tresna andana zituzten berezko. Arkitektura ere berezia zuten, halabeharrez garaturikoa.

Halere, etsizetik urrun, agotak beti azaldu dira beren eskubideen defentsan, berdintasun efektibo bat erdieste aldera. Xabier Santxotena eta Josu Legarreta egileei adierazgarria iruditu zitzaizkien agoten jarrera hori, eta jakin-min horri segika *Agotak, berdintasunaren alde borrokalaria* liburuaren ondu dute. Legarreta: «Xabierrek eta biok egin genuen lehen liburuak sorrarazi zituen galderei erantzunez egin dugu berria». Izan ere, *El orgullo de ser agote* (agot izateaz harro) argitaratu zuten 2018an, gaztelaniaz.

Preseski, agoten berezko hizkuntzak zalantza sortu zuela azaldu dute idazleek, eta horrek bultzatu zituela liburuaren egitera. «Saiatu gara azalpenak euskaraz

ematen, eta hainbat testu eta agiri historiko itzuli ditugu, euskara ulergarri batera; euskara baitzen hemengo agoten hizkuntza», esan du Legarretak. Izan ere, XVI. mendetik XX. mendera bitartean agotek herriz herri izan zituzten auzietako agiriak aztertu dituzte, alde eta kontrakoak, gizataldearen «argazki bat» eskaini asmoz. «Ez genuen analisi orokor bat egin nahi, eta herri eta herrialde bakoitzean agotek izan zituzten gorabeheraz hornituriko kapituluak idatzi ditugu», esan du Legarretak. Esaterako, Aria lizentziatuak 1675ean idatzi zuten 130 orriko txostena erabili dute: «Desagertutzat jo zuten, eta guk aurkitu genuen», esan du Santxotena.

Halaber, kutsu biktimista alde batera utzi nahi izan dutela azaldu du Santxotena: «Bada garaia agotek izan zituzten bestelako tasun goragarriak azaltzen hasteko, horregatik bildu ditugu berdintasun eskubidea lortzeko egin zituzten ahaleginak eta ekintzak». Izan ere, ikuspegi negatibotik eta antropologikotik egin dira gizataldearen ikerketa gehientsuenak.

Baina, bereziki, agoten jatorriak eragin izan du jakin-min handien, eta beraz azaltzen duten hipotesi klasikoetatik urrundu nahi izan dutela ere esan dute: «Gure inguruko lurretara zergatik etorri ziren azaltzeko hipotesi berri batzuk planteatu ditugu liburuan». Izan ere, agoten aurkako jarreraren atzean arrazoi politiko eta ekonomikoak zeudela argi utzi nahi izan du Legarretak, erlijioaren itxurapean bazen ere. Nafarroako agoten izaera bakezalea ere nabarmendu dute idazleek: «Dakigunez, European zehar ere baziren agotak, eta oldarkeria erabili zuten berdintasuna lortzeko; Nafarroan, inoiz ez zuten indarkeria hautatu, bide demokratikoak baiziki». ●